

Haurren Hirien Sarea

Kidetza

Kide izateko baldintzak

EAEko udal bat izatea.

Sarearekin bat egiteko konpromisoak

Ekintza zehatzak garatzea, partekatzea eta kolaboratzea. Honela zehazten da:

- Sarearekin bat egitea Alkatetzaren Dekretu bidez eta Udalbatzaren edo Gobernu Batzordearen akordio bidez, ordezkari politiko eta tekniko guztiak inplikatu nahian, epe ertain eta luzean proiektuak jarraipena izango duela bermatzeko.
- La Città dei Bambini nazioarteko sarearekin bat egitea.
- Sarearen bilera teknikoetara eta koordinazio-bileretara joatea, eta adostutako konpromisoetan parte hartzea.
- Ekintzaren bat garatzea Haurren Hiria proiektuaren baitan (gutxienez, pilotu komunitako bat: Haurren Kontseilua edo Eskolara Lagunekin).
- Esperientziak eta ezagutzak partekatzea gainerako udalerriekin (pleguak, zabalkunderako materialak, ekintza-ideiak...).

Parte hartzeko espazioak

Sareko kideen arteko lan-saioak egiten dira, partekatutako kudeaketarako eta komunitatearen garapenerako tresna nagusi gisa. Saioen maiztasuna kideek adosten dute (hilean behin edo birritan egiten dira), eta bi ataletan daude egituratuta:

Lehenengoan, ikuspuntuak edo esperientziak aurkezten dira.

Bigarrenean, arazoak edo erronkak konpontzeko lan praktikoa egiten da, sareko udalerrien benetako egoeretatik abiatuta.

Erabakiak hartzea

Kideek autonomia dute proiektuaren garapena eta betearazpena egokitzeko, udalerriarren errealitatearen arabera (neurria, eskuragarri dauden baliabideak, betetzeko moduko epeak, konprometitutako masa soziala...).

Erabakiak hartzeko espazioak

Agenda partekatuari erreferentzia egiten dioten gaiak (edukien proposamena, inkorporazio berriak onartzea, lidergoak, lurraldetasuna eta abar) sarean bertan erabakitzen dira, lansaio zehatzen bitartez.

Sarearen jasangarritasunari erreferentzia egiten dioten gaiak (hitzarmenak, finantziazioa bilatzea, kontratazioak, proiektuaren salmenta aktiboa...) Innobasqueko zuzendaritza batzordeak erabakitzen ditu.

Gai estrategikoak, baldin eta prestakuntzari eta ikerketari buruzkoak badira, EHUrekin lankidetzan erabakitzen dira. Sarearen berbideratze estrategikoa Innobasquek proposatzen du, eta sareak onartu behar du (orain arte, sareak inoiz ez dio ezetz eman Innobasqueren proposamen bati).

Agenteak espazio horietan

Kide diren udaletako teknikariak edota politikariak eta laguntza teknikoa (Innobasque eta Solasguneko langileak). Batzuetan, goragoko mailetako beste erakunde batzuetako (foru aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta abar) ordezkari instituzionalak joaten dira, baina ez parte-hartzaile gisa.

Q-epea

Kidetza

Kide izateko baldintzak

Hobekuntza-esparruen diagnostikoa edukitzea, erakundearen hausnarketaren ondorioz.

Hobekuntza-esparruak jorrazteko lan-plana finkatuta izatea.

Kudeaketa aurreratuarekiko konpromisoa erakusten duten ekintzak martxan jarri izana.

Erakundearen arduradun nagusiak sinatutako eskabidea, urteroko hobekuntza-planen bitartez bikaintasunerantz joateko borondatea adierazten duena.

Sarearekin bat egiteko konpromisoak

Ikasketa partekatua eta lankidetza ahalbidetzea, parte hartzen ari den erakunde bakoitzak erritmo jakin bat izan dezakeela jakinik.

Antolatutako jarduera orokorretan parte hartzea.

Q-epea proiektuaren lantalderen batean parte hartzea.

Urtero adierazleak sartzea Q-epea sarearen baterian, eta lantaldeek eskatutako informazioa ematea.

Urteroko kuota ordaintzea, Euskaliten Idazkaritza Teknikoak eta jarduerak antolatzeak dakartzan gastu orokorrak ordaintzeko (kuota hori berdintasunean dago oinarrituta, eta egiten diren jarduera kopuruarekiko eta kostuarekiko proportzionala da).

Konpromiso formal horiez gain, sarea hain zehatza edo neurgarria ez den zerbaitez elikatzen da bereziki: pertsona positiboen konpromisoaz, hain zuzen ere. Pertsona horiek zentzurik onenean ulertzen dute ez dela arazorik planteatu behar; aitzitik, konponbiderako moduak planteatu behar dira.

Parte hartzeko espazioak

Zuzendaritza batzorde bat dago, eta Q-epea sareko kide diren erakundeek parte hartzen dute hor.

Helburuak autonomiaz garatzen dituzten lantaldeak ere badaude. Hauek dira une honetan martxan dauden taldeak:

- Adierazleen Bateriaren multzoa
- Zerbitzuen Karten multzoa
- Kudeaketa Aurreratuko Biltzarra prestatzeko multzoa
- Elkarlanerako Tresnen multzoa
- Irudiaren eta Markaren multzoa
- Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren multzoa
- Europako Astearen Jardunaldia prestatzeko multzoa
- Gardentasunaren multzoa

Erabakiak hartzea

Lantalde bakoitzak bere zereginen gaineko erabakiak hartzeko eskumena dauka.

Sare mailako erabakiak zuzendaritza batzordeak hartzen ditu.

Aipatutako batzordea 2 urterik behin berritzen da, eta 2 kide aldatzen dira. EUSKALIT arduratzen da organo horren Idazkaritza Teknikoaz. Biltzarra antolatzeko lanetan, berriz, TISA enpresa aritzen da.

Zuzendaritza batzordea Q-epea sareko erakundeek osatzen dute: udalak, aldundiak, unibertsitateak eta abar izan daitezke.

Kidetzta

Kide izateko baldintzak

Agente berriak sartzerakoan, nor, zergatik eta zertarako pentsatu behar da. Hau da: zein ekarpen egiten diote multzoari/taldeari?

Era berean, finkatutako gutxieneko markoa proiektuaren helburuak partekatzea da:

- Komunitate profesionala osatzea sorkuntzaren, kulturaren eta sormen aplikatuaren diziplinarteko formen inguruan.
- Arlo pribatutik lan egitea, bokazio publikoz, komunitatearen ongizatea sendotzeko.
- Kultur jardunetatik lan egitea, subjektibotasun indibidual eta kolektiboa eraldatzeko modu gisa.
- Lankidetzaren arlotik eta esparru libre zein irekitik lan egitea, oinarrizko printzipio gisa.
- Eragindako pertsonen erantzunkidetasunean eta elkarreragintasunean oinarritutako inplikaziotik lan egitea, eta beraien artean eta beren testuinguruarekin ere lan egitea.
- Produkzio-esparrutik lan egitea, bizitza erdigunean jartzeko saiakera eginez.

Sarearekin bat egiteko konpromisoak

Erantzunkidetasunean oinarritutako inplikazioa proiektuaren garapenean: hilean 8 orduko konpromisoa hartzea, arlo kolektiboa kudeatzeko. Ordu horien jarraipena denboraren bankuaren bitartez egiten da, denboraren eta erantzukizunen kudeaketa/dedikazio orekatua bilatzeko inplikaturako agente guztien artean eta produkzio zein ugalketa lanen artean.

Parte hartzeko espazioak

2014an sortu zenetik, Wikitoki eredu asanbleariotik eredu soziokratikora igaro da. Soziokraziak bertikaltasun apur bat ematen die talde horizontalei, eta horizontaltasun handia talde bertikalei. Hori lortzeko, boterea erabakigune semi-autonomoetan banatzen da (gune horiei zirkulu deitzen zaie).

Une honetan, hauek dira parte hartzeko espazioak:

1/ Oinarria

Kolektiboko bazkideak dira, proiektuetan parte hartzen dutenak baina ez daudenak erabakiak hartzeko espazioetan.

2/ Zirkuluak

- Egunerokotasun-zirkulua.
- Baliabideen zirkulua.
- Kanpoko harremanen zirkulua.
- Koordinazio-zirkulua.

Erabakiak hartzea

Zirkulu bakoitzak berari dagokion lanaren inguruko erabakiak hartzen ditu. Beharrezkotzat jotzen denean, erabakiak koordinazio-zirkulura eramango dira.

Erabakiak adostasunez hartzeko formula erabiltzen da. Sistema horren bitartez, proposamenak aurkezten dira (eta egitura jakin batera egokitzen dira), eta zalantza-txandetan, sentipen-txandan (hautazkoa) eta adostasun-txandan (txanda horretan, arrazoitutako objektzioak egiten zaizkio proposamenari) hartzen da horiei buruzko erabakia. Objektzioak lantzen dira, eta, objektzio gehiago ez dagoenean, proposamenak onartzen dira.